





1111

146



Cembait mirabe gaste
eraguera gabe
gurasoen ondotic
irtetzen ~~guraso~~ dirade (guerade)
esanaz: American
dudarican gabe
emen baño obeto
bicico guerade.

2.^a

Ametz ori equin da
mirabe gastiac,
eunca juaten dira (guera)
utriric gustiac;
gombait aberastia
~~dituque~~ dituzte iustiac
orra cer amparua
guraso tristiciac.

3.^a

Aruntz allegatu ta
ampiarorican ez,
~~guere~~ beren ametz gucia
irtenic al reves;
~~gueren~~ beren buruac galtzen
bicimodu charrez,
vueltatu nayagatic
ez da izaten errez.

4.^a

Postura orretan bici
~~guera~~ dira Ameriquetan
mantenduco badira (~~baguera~~)
gustozco penetan;
min bada amparua
~~degeu~~ dute hospitalitan
oqueitatic amasei
iltzen dira bertan.
guera

Er derute icusten
ruben bequiaquin
cembat juaten diraren
fortunan pozaquin?
Eundic bat etortzen
bada cerbaitequin
beste queyenac bertan
ill dira gaitzaquin.

6.^a

Bi milla ta queyago
legua birian
dijuar barcuetan
berentzat caltitan;
aruntz allegatu ta
inoren mendian
beguiratu charra ta
despreciyo bian.

7.^a

Utriric aita ta amen
carino gozuac
dijuar pasatzera
tratu penonac
esperantzetan bici
dira gurasuac
aliviyo ederra
ez dute gaskuac.

8.^a

Orra aitac eta amac
beren aurrac asi,
laguntzeco demboran
dijuar igasi;
campora juan baño len
pensatu lembici,
cer modutan diraren
American bici.

Gurasoac gauza bat
aritu biardu
ez dezala campora
alabie bialdu;
asco juan dira bano
chit guchi azaldu
lana equin dezala
echian albadu.

10.

Euscal erriyan ondo
dirare aciyac
garbitasun onian
Jaunari gracyac;
utziric gurasuac
eta lagun guciyac
dijuar pasatzera
ango miseriyac.

Lembait comisionata
dirade ibiltzen
aruntz eramateco
gendiac billatzens
itz leun batxuequin
diturte enganazen
orra cer postaretan
diran nescac galtzen.

12.

Orra itz onarequin
Aristiac engana,
guizon oyek artaco
daucate mingana
juan diranac etorri
nai luteque bana
ecin sobratu dute
viajientzat ana.

1.º

Euscal errriyan danac
guera ezagunac,
anai arreba eta
gañera lagunac;
utzi alde batera
ametzco fortunac,
queyago balio du
emengo osasunac.

2.º

Ametz oyec ez artu
seculan buruan,
batec obe du bici
toqui seguruan;
osasun ona eta
anayac onduan,
lur au baño oberic
ez dago munduan.

3.º

Aide charra ta gaitza
dago American,
emen osasun ona,
lana gogotican,
certara juan inora
euscal erritican,
abec dira Americac
ez da oberican.

4.º

Gastetan irten nintzan
echetic campora,
gustizco miserian
pasa det dembora,
euscal errico gauzac
datorquit gogora,
Ama: ¡noiz juango naiz
¡ah! zure ondora?

